



**“Politikatik zuzendaritzaren mundura egindako
gogoetak. Kudeaketa ekonomiko publikoari buruzko nire
ikuspegia”**

Pedro Azpiazu Uriarte

OGASUN ETA EKONOMIAKO SAILBURUA

ADYPE, 2017ko maiatzaren 10a. Hotel Domine.

Presidente jauna, elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kideak, jaun-
andreak,

egun on guztioi.

Lehenik eta behin, Euskadiko Zuzendari eta Profesionalen Elkarteari eskerrak eman nahi dizkiot foro honetan parte hartzera gonbidatzeagatik. Zorionez, lagun eta ezagun artean nago, baina aitortu behar dut ez dudala zuen Elkartea sakontasunez ezagutzen, ez dudala aurreko Finantza Klub zaharretik sortutako elkartea sakontasunez ezagutzen. Hortaz, zuek hobeto ezagutzeko eta zuengana hurbiltzeko aukera moduan hartu dut gonbidapena; elkarrekin hitz egiteko eta elkarri aberasteko aukera moduan.

Gaur hitz egiten ari zaizuen pertsona, politikaren mundutik datorren arren, zuzendaritza-funtzioaren berezko kezkak ditu, zuek bezalaxe; izatez, nik ere zuzendaritza-erantzukizunak ditut antolakunde batean.

ADYPEren helburuen artean eskumenak hobetzea, lidergotza areagotzea eta izpiritu berritzailea aipatzen dira. Esan behar dut, nire iritziz, sektore publikoaren esparruan ere funtsezkoak direla helburu horiek.

Ekintza politikoak Ogasunaren eta Ekonomiaren arloan dituen giltzarriez hitz egitea espero duzue, eta ez dizuet horretan hutsik egingo, hori espero behintzat.

Nolanahi ere, nire esku-hartzeari beste bide batetik eman nahi nioke hasiera; zuzendaritza-funtzioaren eta politikaren artean zubiak eraikitzen lagun dezaketen pentsamenduak eta hausnarketak eskaini nahi nituzke.

Askotan aditzera eman izan dut, eta baliteke zuetako batzuek enpresafororen batean aurrez ere entzun izana, nik ere Administrazio Kontseilu bat dudala. Ez harritu.

Esan nahi dut Gobernua, zuzendaritza-talde bat den heinean, berez, **Legebiltzarraren** esanetara dagoela, eta, hori, halaber, dagokion Batzar Nagusiaren, hau da, **herritarren**, borondatearen arabera osatzen dela.

Izan ere, batzuetan, Gobernuko kideei orotariko eskakizunak egiten zaizkigu, inguruabar horiek aintzat hartu gabe. Harrigarria egiten zait hori; erakunde pribatuetan politika badago, nola ez da politikaren barruan politika egongo.

Erabaki publikoak —nire kasuan ogasunaren, aurrekontuen edo ekonomia-politikaren arloko erabakiak— ez dira adimen-jardun baten emaitza, nahiz eta erabaki arrazoituak eta, ahal izanez gero, zentzuzkoak izan behar duten.

Are gehiago, arlo horretan benetako aditua den Charles Lindblom-en arabera, *"subjektuen arteko elkarrekintzan eta lehentasunetan oinarritzen den sistema politiko batek adimen hutsean oinarritzen den beste sistema batek baino hobeto funtzionatzen du"*.

Lehen begiratuan harrigarria ematen duen arren, iruditzen zait erraz uler daitekeela hainbat herrialdetako kasuak aintzat hartzen baditugu. Herrialde batzuek ondo prestatutako elite politikoa duten arren, ez dira jardun distiratsuaren adibide. Seguru nago guztioi adibide eta esperientzia zehatzak datozkigula burura.

Ekonomialari eta zuzendari naizen aldetik murgilduta nagoen munduan, erabakiek beste konplexutasun bat dute, maila pribatuko konplexutasunaz harantzago.

Desberdintasun horren adierazleetako batzuk aipatuko dizkizuet. **Pluraltasun instituzional** handia dugu, deszentralizazioaren ondorioz eta hainbat gobernu-maila egotearen ondorioz. Ezaugarri horrek zailtasun berezia ematen dio jardun publikoari; baina, esaten nizuen moduan, prozesu sozialetan ez dago elkarbizitza hobeto eta modu arrakastatsuagoan antolatzeke modurik.

Horrek ez du esanahi ez dela alde handirik izango gizarte desberdinek, sistema demokratiko bera abiapuntu izanik, lortzen dituzten emaitzetan.

Kontuan izan behar da, eredu orokorraren barruan, guztia dagoela gizarte bakoitzeko pertsonen jakintzaren eta kalitatearen mende, balioen mende eta pizgarri-egituraren mende. Eta horretan guztian aldeak oso-oso handiak izan daitezke, eta izaten dira.

Ez dago zalantzarik **emaitza hobeak lortzen dituztela elkarlan-maila handiago duten gizarteek**; alabaina, horrek ez du esanahi gizarte horietan ez dagoela gatazkarik, hori ezinezkoa baita.

Gero eta zailagoa da pentsatzea gizarte demokratikoetako arazoak boterearen jardun hutsaren bidez ebatzen direla —funts arrazional edo intelektual batean oinarritu edo ez—.

Nire esperientzia politikotik, eta Euskadiko errealitate instituzionaletik, argi dut erabaki eta politika publikoak ezin direla bideratu menderatze-jarduna baliatzen duen botere-eredu batetik. Badakigu, hori ez dela inorentzat horrela, ezta oso subirano direnentzat ere.

Gaur egun, boterea baliatzeko moduek oso bestelako erduei erantzuten diete. Batetik, *joko estrategiko* deitu diezaiekegunei erantzuten diete, giza elkarrekintzaren eta, hortaz, erakundeen arteko elkarrekintzaren ezaugarri unibertsala baitira. Horrek esanahi du besteen jardun-esparrua hartu behar dela beti kontuan, eta jokoan dimentsio anitzek eragina dutela (eskubidean oinarritutako menderatzearen dimentsioek ez ezik, arrazionaltasun ekonomikoaren, informazio-asimetriaren, indar

ideologikoaren eta gogatze moralaren dimentsioek ere bai). Teoriak erakusten digun moduan, jokoek ez dute beti modu erraz eta azkarrean lortzen oreka, Nash matematikariaren oreka —ekonomiako Nobel saridun matematikari horretan oinarrituta egin zuten *Una mente maravillosa* filma—.

Erakundearteko politikaren errealitatean oso modu argian bizi dugu hori. Zailtasunak izan ditugu ekarpenen legea garaiz eta modu egokian berritzeko. Estatuarekiko harremanak denbora luzez izan dira behin-behinekotasunaren eta desadostasunaren mende, ondo dakizuen moduan, eta gero zehaztasun handiagoz azalduko dudan bezalaxe.

Desiragarriak lirateke elkarlana eta oreka nagusi duten harremanak, baina baldintza objektiboek eragotzi egiten dute batzuetan hori lortzea.

Esate baterako, Euskadiko ogasunaren kudeaketa lurralde historikoen esku dago, eta erakunde komunek ez dugu hitzartutako zergen zergabilketaren gaineko zuzeneko ezagutzarik eta kontrolrik. Elkarlana nahitaezkoa eta ezinbestekoa da politika fiskaleko lineak batera definitzeko garaian, baina erakunde bakoitzak geure helburuak ditugu. Era berean, legeriak txertatzen duen pizgarri-eskemaren eraginpean dago zergabilketako helburuen lorpena.

Estatuko Administrazioarekiko harremanetan ere gertatzen da izaera estrategikoko botere-erlazioan eta -jardunean oinarritutako eredu hori, batez ere ekonomiaren eta finantzen gain, Kontzertu Ekonomikoaren berezko alde bikotasunaren ondorioz.

Hori bera gertatzen da, hein txikiago batean bada ere, politika sektorialak aztergai ditugunean; izatez, Estatuarekiko harremanetan, boterearen jardun gordinak beti nahi izaten du protagonismo handiagoa. Aldianaldian, araudietan egiten diren garrantzi handiko aldaketek administrazioen arteko harremanen mundua eraldatzen dute.

Botere-jardunaren hirugarren modua *Gobernu* edo *gubernantza* deritzan modua da. Lortu nahi diren helburuak eta horiek lortzeko bitartekoak definitzen dira jardunbide horretan, eta, horrenbestez, espazio handiagoa dago arrazionaltasun instrumentalerako —justifikazio gisa— eta ongizate-helburuak lortzeko —jarduerako azken neurri gisa—.

Jakin badakizue eredu hori garrantzi handikoa dela Eusko Jaurlaritzaren jardueran. Eusko Jaurlaritzak gobernu-ekintza planifikatzeko sistema zehatza du, eta sistema horren hedapenean esperientzia egiaztatua eta arrakastatsua du.

Plangintza-sistema horiek ez dira jarduera teknokratikoak; horietan zuzeneko parte-hartzea araua izateaz gain, prozesu demokratikoaren eta haien kontrol-mekanismoen bihotzean bertan txertatzen dira, eta horretan, zeresan handia du Legebiltzarrak.

Eta, zuzendaritzaren arloko profesionalez osatutako entzuleria dudanez gero, seguru nago txokoren batetik norbaitek pentsatuko duela hori elite ekonomikoek erabaki publikoetan duten ustezko agintearen beste froga bat baino ez dela.

Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da; kontrol demokratikoko oinarriaren ondorioz ez ezik, politika publikoko eragile-sareek gaur egun duten errealitate konplexuaren eta pluralaren ondorioz eta, azken finean, lortutako **oreka** interes-aniztasunaren emaitzazkoa izatearen ondorioz ere bai —interesek ez dute zertan beti gatazkan egon—.

Lankidetzaren eredutik urrun dauden ahots batzuek diote eliteek iradokitzen dituztela erabakiak, eta ez dietela herritarren interesei erantzuten.

Orakulu horiek herritarren benetako interesak ezagutzeko pribilegio berezia izango balute bezala. Herritarren benetako interesak ikusarazten zaizkienean, hau da, herritarrek erabaki duten gure “administrazio-kontseiluaren” osaera ikusarazten zaienean, adierazten dute elite dominatzaileek herritarren lehentasunak modelatzen dituztela eta eliteek lortzen dutela herritarrek eliteei komeni zaiena nahi izatea.

Argudio horren ildotik kalifikatzen dute Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu berria neoliberalismoaren eskuliburu gisa. Badakizuen bezalaxe, merkatua eta arrazoi instrumentala oinarri dituen ideologia da neoliberalismoa, eta ondorio suntsitzaileak izan ditzake pertsonentzat eta gizartearentzat, Atzeraldi Handiarekin berriro ikusi dugun bezalaxe.

Egia da neoliberalismoak, batez ere haren muturreko formetan, humanismoaren aurkako mozorroa jantzi dezakeela. Inolako zalantzarik gabe, ildo horretako nazioarteko joeren ondorioz, subiranotasun partekatua duen herri txiki bat gertaera globalen astindupean egon daiteke.

Edonola ere, bokazioz, **gizartea merkatuaren mende duen ereduaren beste muturrean daude Euskadiren eta bertako Gobernuaren** portaera eta ahalegina. Sozialdemokraziaren, humanismo kristauaren edo erradikaltasun demokratikoaren filosofiaren pean, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuek gizarteak agindutakoa gauzatu dute, eta gizarteak osasunaren eta hezkuntzaren funtsezko zerbitzuak kalitate-maila handiarekin eta modu kolektiboan eta unibertsean egitea erabaki du.

Gizarteak eta Gobernuak mugaraino eraman dituzte haien eskumenak, askatasun osoz zuzkitzeko munduan dagoen **gizarte-babeseko sistemarik** aurreratuenetako bat.

Garapen ekonomikoa bere gain hartu duen Herri bat eta Gobernu bat gara, jakitun baikara arlo horretan arrakasta lortzeak aukera emango duela erronka berriei erantzuteko eta **arazo kolektibo** berriei aurre egiteko, hala nola arazo demografikoari, familia-politikei, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunari eta ongizatearen hobekuntzari, betiere mendetasun-egoerei erantzunez.

Ez naiz puntu honetan gehiago luzatuko. Botere-jardunaren zenbait ezaugarri marraztu ostean, alosietatik antzerkera pasa nahi nuke, eta nire gobernu-erantzukizunekin lotuta dagoen kasu praktiko bat jorratu nahi nuke.

Horri ekin aurretik, ez nuke aipatu gabe utzi nahi arduradun politikoez ez dutela zertan berritzaile ez izan; erabaki publikoak hartzeko prozesuen berezko zailtasunek ez dituzte hartara behartzen. Izan ere, arazo kolektiboak ebazteko moduan, hobekuntza nabarmenak sartzen saiatu behar dute, eta ez hobekuntza marjinal hutsak.

Haatik, inozoa litzateke testuinguruaren azalpen-indarra kontuan ez hartzea, ekintza publikoaren jarduna azaldu nahi denean. Joan den mendeko laurogeiko hamarkadaren hasieratik, behar besteko esperientzia profesionala eta politikoa bildu dut jakiteko aurrerapausoak eta atzerapausoak azaltzean hainbat bektore izan behar dela aintzat, eta aintzatespenak ez dituela beti benetako merituen aitortzen.

Kasuaren azterketari ekinez, jakinarazi behar dizuet berriki egin den Kupoaren negoziazioari buruz hitz egingo dizuedala. Hasteko, gogorarazi nahi dizuet sailburu izendatu eta gutxira, Pedro Luis Uriartek nire profil politikoaren ganean egindako aipamen zintzoa aipatu zutela Kontzertuaren Komunitatearen barruan. Iruzkin hau egin zuten: "sailburu jaunarena oso ondo dago, baina testuinguru politikoa da benetan garrantzizkoa".

Eta esan behar dut iruzkin hori egin zuenak arrazoia zuela. Negoziazioen historia eta 1981ean Kontzertua berreskuratu izanaren une gogoangarria berrikusten badugu, hamarkadaz hamarkadako aurrerapausoak aurkituko ditugu. Burura datozkigu 1987., 1997. eta 2007. urteak, nahiz eta urte

horiek bakarrak ez diren. Hamarkada bat geroago, 2017an, beste bultzada bat izan dugu.

Hori guztia ez da kasualitate hutsa. Testuinguru politikoa erabakigarria da; iraganean erabakigarria izan zen eta une honetan ere halaxe da, jakina. Era berean, aditzera eman beharko genuke beste testuinguru politiko batzuk ere egokiak izan zirela gatazka eta arazoak elikatzeko, eta hori ere egia da.

Nolanahi ere, eta hori aitortu ondoren, ekintza politikoa nola ikusten dudana azaldu nahi dizuet. Eta horretarako, boterea ezaugarritzeko erabili ditudan kontzeptuak izango ditut oinarri, baita, batik bat, **ekintza publikoan nagusitu behar diren printzipioak** ere.

Azken horien artean daude talde guztien **nortasunarekiko errespetua**, abiapuntuko deskalifikaziorik gabe —zoritxarrez maizegi entzuten dira deskalifikazioak—. Uste osoa dut **zintzotasuna** eta alderdi guztien jarrerarekiko **benetako irekitasuna** direla jarrera posible bakarrak. Eta, azkenik, uste dut **elkarlana** funtsezkoa dela arazo kolektiboari irtenbidea emateko, lehentxeago aditzera eman dudana bezalaxe.

2017rako Euskadiko Aurrekontuen negoziazioan, uste dut aukera izan dugula erakusteko nola ulertzen dugun erantzukizun politikoaren erabilera. Horrekin, egia ez diren eta ezer positiborik ekartzen ez duten bi akusazio indargabetu nahi ditut behin betiko.

Lehen akusazioa da **euskal aurrekontuaren negoziazioa** Estatuko aurrekontuaren mende zegoela. Erabat gezurra da hori. Negoziatioan

Eusko Legebiltzarreko taldeak izan ziren solaskideak, eta ez zen legebiltzarreko euskal alderdien borondateaz bestelako baldintzatzailerik izan. Gainera, agerikoa da Madrilgo akordioa ez zela azken ordura arte lortu, gure aurrekontua apirilaren 11n jada onartu zenean.

Bigarren akusazioa da, eta aurrekoarekin lotzen da, taldeekin **elkarrizketak zabaltzea** itxurakeria izan zela —eta ez benetako elkarrizketa—, eta negoziazioari erritmo jakin bat ezartzeak hori frogatzen duela. Horrek ere ez du inolako oinarririk. Legebiltzarreko taldeekin elkarrizketak zabaldu genituenean, ez genekien zein izango zen haien jarrera; benetan ginen haien jarreraren zain.

Indar politikoetako bat berria zen Legebiltzarrean, eta besteak etengabeko bilakaeran daude. Horrenbestez, ziurgabetasuna handia zen. Elkarrizketa zintzoa zabaldu genuen talde guztiekin, taldeen jarrera ezagutu nahi genuen. Bi bilera egin ondoren argi identifikatu genuen horietako zeinekin izango zen posible akordioa lortzea, ez baitzegoen Eusko Jaurlaritzaren proiektutik hain urruti.

Nik erabaki horretarako muga asteazken baterako finkatu nuenean, prozesu politikoa ezaugarritzen duten mugimendu estrategiko horietako bat besterik ez nuen egin. Izan ere, aurrekontuaren tramitazioak bere denborak ditu, eta are gehiago luzapen-egoera batean. Arduragabekeria izango zatekeen eztabaida amaitezina irekitzea. Gobernuak —gobernu honek zein beste edozeinek— aurrekontua behar du funtzionatzeko eta bere gain hartu dituen konpromisoak betetzeko.

Errespetu-, zintzotasun- eta irekiera-jarrera hori bera nagusitu da Kupoaren inguruko negoziazioan, hasiera-hasieratik. Lehen egunetik helarazi nion Montoro ministroari gure jarrera ez zela indar-jarrera baliaraztea, bi aldeentzat akordio egokia bilatzea baizik. Horrek errespetuzko jarrera adierazten zuen, lanarekiko errespetua zein bi talde teknikoen emaitzekiko errespetua. Jarrera horrek ez du esanahi ez dagoela zailtasunik, are gehiago desadostasuneko iragan baten inertziak hautsi behar direnean. Kontuan izan behar da azkenaldian, desadostasun horren ondorioz, alde bakarreko jarrerak hartzeko joera nagusitu dela.

Ministroarekin hamabost ordu baino gehiago eman dut bilduta, eta makina bat elkarrizketa izan dut berarekin telefono bidez. Teknikariek, jakina, askoz ere ordu gehiago lan egin dute jarrerak hurbiltzeko, eta lan aparta egin dute. Aurrekontu-datuei lege-esparrua aplikatzeko garaian nagusitu den zorroztasun teknikoa izan da emaitzen bermea, bai iragan ekitaldietako erregularizazioari dagokionez, bai bosturteko berriari hasiera emango dion 2017ko oinarri-urte berriaren Kupoa zehazteari dagokionez.

Iraganari dagokionez, gogorarazi behar da Kontzertuaren aplikazioaren konplexutasunak aldaketa batzuk eragin zituela hasiera-hasieratik. Kupoa urteko aurrekontuaren arabera urtero kalkulatu beharrean, erabaki zen oinarri-urtean finkatzea eta, ondoren, itundutako zergen hazkunde-indizearen arabera eguneratzea.

Estatuko aurrekontuaren errealitatea bizia eta aldakorra da, baita zergabilketen bilakaera ere; are gehiago sektore publikoa berrosatzeko testuinguru batean, hau da, autonomia-erkidegoek gero eta garrantzi handiagoa duten testuinguru batean.

Gobernuaren **betebeharra eta erantzukizuna** da Euskadirentzat funtsezkoak diren akordioak lortzeko lan egitea, eta hau horietako akordio bat da. Akordio **bikaina eta oso pozgarria** da konplexutasun handiko esparru batean: Estatuarekiko finantza-erlazioetan.

Bi gobernuen artean zegoen **finantza-ziurgabetasunarekin** amaitu dugu. 2011tik Euskadiren eta Estatuaren arteko finantza-harremanetan **enkistatuta** zegoen **arazo** bat ebatzi dugu.

Pozik egon behar dugu Euskadiren eta Estatuaren arteko finantza-harremanak **normalizatu eta erregularizatu** ondoren. Eta, horretarako, 2007-2011ko Kupoari buruzko Legearen **bosgarren xedapen gehigarrian** xedatutakoa aplikatu dugu, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoari esleitzen baitio 2007ko bosturtekoaren oinarri-urteko kupoa eta eguneratze-indizea berrikusteko ahalmena.

Finantza-egonkortasuneko aldi batean sartu gara.

Batetik, 2007-2016 urteetako kupoaren kalkuluan izandako desadostasunen ondorioz, eta enplegu-politika aktiboen ondorioz, Estatuak itzuli beharreko zenbatekoa finkatu da: **1.400 milioi euro** (1.248+152).

Zenbateko hori bosgarren xedapenaren baterako irakurketa egitearen emaitza izan da. Eguneratzeko indizeak eta bosturtekoko (2007ko) oinarri-urteko kupoa homogeneizatu dira. Zenbatekoa handia da, erreferentziazko aldia ere handia baita.

Aurreko urteetan gauzatu gabe zeuden alderdien artean, enplegu-politiketako kontu-sailen likidazioak ere bazeuden. Akordioan, beraz, 2011-2015eko behin betiko likidazioak ezarri dira, baita enplegu eta prestakuntzako politika aktiboen 2016ko behin-behineko balorazioa ere. Guztira, 152 milioi euroko zenbatekoa da.

Bestalde, 2017rako **1.300 milioi** euroko behin-behineko kupoa zehaztu da. Kupo horretan enplegu-politika aktiboak aintzat hartu ez direnez gero, 344 milioi euro kendu beharko dira, eta, hartara, **956 milioi** euroko zenbatekoa geratu da ordaintzeko.

Testu hori Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Misto batean onartuko da maiatzeko bigarren hamabostaldian, zehazki maiatzaren 17an.

Azken hamarkadan kupoa kalkulatzeko izan den problematika Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren ondoriozkoa izan da. Kupoari buruzko Legearen bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, 2011ko hasieran bildu behar zuen Batzorde Misto horrek eguneratze-indizea homogeneizatzeko eta, aldi berean, oinarri-urteko kupo likidoa homogeneizatzeko. Batzorde Mista ez zen inoiz deitu.

Hori dela eta, bosturteko legearen 10. artikuluan jasotzen den eguneratze-indizean izandako desbideratzearen ondoriozko desadostasunek eragotzi zuten ekitaldi horietako (2007-2016) kupoak behin betiko ixtea.

Desbideratze hori 2011n gertatu zen, eta Estatuaren sarrera-aurrekontuan jasotako zergen lagapenaren ondorioz eta horrek kupoan zuen inpaktua ez neutralizatzearen ondorioz sortu zen.

2017ko behin behineko kupoa, beraz, hurrengo bosturtekorako oinarri-urteko kupoa izango da, eta, horrenbestez, 2017-2021 bosturteko lege berriaren lehen harria jarrita dago. Izan ere, lege hori Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoan adostu beharko da, eta, gero, Gorte Nagusiek onartu beharko dute.

Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren bigarren bilera hori uztailan deituko da, urte honetan bertan onar dadin bosturteko legea. Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren bigarren bilera horretan, beste gai batzuk ere aztertuko dira, hala nola gaur egungo Kontzertu Ekonomikoaren eta hainbat zerga-alderdiren arteko lotura.

Berrito nabarmendu nahiko nuke akordio horren garrantzia, finantza-egonkortasuneko aldi batean sartzea ekarriko baitu eta Estatuarekiko finantza-harremanetan ziurtasuna ekarriko baitu. Eta hori, jakina, guztiontzat da onuragarria.

Amaitzeko, azaldu ditudan printzipioek eta jarrerak erakundearteko harremanak normalizatzeko garaian duten garrantzia nabarmendu nahiko nuke: analisisien zorrotasun teknikoa, alde guztien helburuekiko eta jarrera politikoekiko errespetua eta elkarlanarekiko konpromisoa dira, nire iritziz, aurrera egitera eta arazoak ebaztera eramango gaituen bidea.

Beti izango da korapiloa ebaki batez desegiteko tentazioa, Alexandro Handiak egin zuen bezalaxe; baina, nik uste dut korapiloa desegitea dela koska. Aro postmodernoak ez du zerikusirik Antzinaroarekin, ezta XX. mendearekin ere. Gaur egun, ez da menderatze-jarduera, baizik eta jokoak eta elkarlana.

Gustatuko litzaidake espazio hau baliatzea zuekin batera alderdi hauek eta nahi dituzuen beste alderdi batzuk aztertzeko.

Eskerrik asko